

# getxoBerri



Getxo

bizi ezazu



#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1455 zb.  
www.getxo.eus

Maiatzak 18  
>> Maiatzak 28

2017

## / Nabarmentzekoak

- > Benetan ez zaizula sartzen sehaska bat etxean? (2. or.)
- > Chris Claremont, Getxoko Komiki Azokako gonbidatu nagusia (3. or.)
- > Emakumezkoen goi mailako skatea eta kontzertuak, La Kantera Pro Nazioarteko Skate Txapelketan (4. or.)

Gau bat Enrique San Francisco eta Raúl Fervérekin (3. or.)



**Kontzertua bi organorekin.** Hilak 20, larunbata, 20:00etan Areetako Ama Mese-deetako elizan. Organo-jotzaileak: Daniela Mokosch eta Pedro Guallar. Antolatzaileak: Getxoko Udala eta Las Mercedes Kultura Elkarteak.

**XXXV. Eskola Antzerki Jardunaldiak.** Hilak 28, igandea, Andrés Isasi Musika Eskolan, 11:30-14:00 eta 17:00-20:30, GUABE elkarteak ikasturtean zehar ikastetxetan antzerki tailerretan egindako lanen erakusketa.

A-  
GENDA



## Ereaga eta Arrigunaga, Bandera Urdindun bakarrak Bizkaian

Ereaga eta Arrigunagako hondartzak dira Bizkaian 2017an Bandera Urdina izango duten bakarrak. ADEAC-FEE Ingurugiroko Hezkuntzako eta Kontsumitzaileen Elkarteak, sari hori banatzen duen erakundeak, eman du dagoeneko ezagutzera aurten ingurumen kalitatearen ikur hori jaso duten hondartzaren izenak.

Ingurugiroa eta natura errespetatuz, itsasertzen eta hondartzaren gestioan egindako ahaleginagatik ematen da ikur hori. Bandera Urdinak aurretik ezarritako estandar batzuk bete izana egiaztatzen du, tartean, bainatzeko uraren kalitate ona, garbitasuna, ingurumen informazio eta hezkuntza alorrean egiten den jarduerak, eta, aldi berean, hondartzetako segurtasuna, zerbitzuak eta instalakuntzak. Bandera Urdinaren azken helburua da turismoaren garapen jasangarria eta hondartzetan eta inguruetan Ingurumenarekin kudeaketa errespetutsua lortzea.

"Itasoko uraren eta hondartzako inguruen kalitatea egiaztatzeaz gainera, bandera hau eskuratzeko egiaztatzen du Getxoko Udalak duen konpromisoa, ingurumenaren jasangarritasunarekin eta ingurumen sentsibilizazio, trebatze eta heziketarekin; urte osoan zehar aurrera eramaten ari den etengabeko lana da, ez soilik udan egiten dena, udalerrira jasangarriago bat lortzeko", adierazi du José Luis Landa Ingurumen zinegotziak. Horrez gainera, "bandera urdinaren sari honek gure bi hondartza hauen garrantzia areagotzen du udalerriko baliabide turistiko nagusietako bezala, non datozen bisitariak gero eta gehiago diren", azpimarratu du Landak. Ereagako hondartzan hamargarren urtez izango da bandera urdina eta Arrigunagakoan zortzigarrenez.

Herritarren proposamenak, beharrak eta kezkek bertatik bertara ezagutzeko

## Getxo txukun Santa Ana auzora helduko da

Maiatzaren 19tik ekainaren 4ra bitartean Getxoko Udalak Areetako Santa Ana auzoan *Getxo txukun*. Auzoz auzo, kalez kale izeneko parte hartzeko programaren edizio berria martxan jarriko du. Ekimenaren helburua da herritarren proposamenak, beharrak eta kezkek zuzenean ezagutzea.

Oraingoan, iradokizunak hartuko ditu honako inguru honen gainean: Eduardo Coste kaletik –Gobela kalearekin batzen den guneraino–, Gobela, Ibaigane eta Amaia kaleak –Getxoko aldea– eta Errebitarte kaleraino –Getxoko eraikinak–.

### Parte-hartzeko dinamika

Amaia Agirre Herritarren Parte Hartze Arloko zinegotziak adierazi duenez "obra txikietarako dagoen aurrekontuarekin auzoan egin daitezkeen hobekuntzak jasoko dira. Era horretan, ezin izango dira jaso, esate baterako, kaleak, parkeak edota auzoak osorik berriz urbanizatzea ...". Era berean, ez dira sartuko programan ekipamendu handiei lotutako eskaerak (kiroldegia, igerilekuak, osasun zentroak...), teknikoki edota ekonomikoki bideragarriak ez diren proposamenak, edo Udalaren eskumenekoak ez diren esku-hartzeak".

Iradokizunak bidaltzeko interesa du-



ten pertsonen Udalera igorri ahal izango dituzte ondoko hiru moduetan:

- idatziz: horretarako banatutako ebakigarrian idatziz, eta honako toki haueetan jarritako postontzi gorrietan sartuz: Areetako geltokiko sarreraren ondoan –Gobela kalearen kantoian–, Santa Ana plazan eta Jolastokietan eta Gobela kaleen arteko kantoian. Postontziak ekainaren 4tik maiatzaren 19ra egongo dira.

- aurrez aurre: maiatzaren 27an Gobela eta Santa Ana kaleen artean, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara jarriko den karpan.

- on line, en [www.txukun.getxo.eus](http://www.txukun.getxo.eus) Jasotako iradokizunak teknikoki kuantifikatu, aztertu eta baloratuko dira lehentasunak jartze aldera, eta egutegi bat finkatuko da egin daitezkeen proposamenetan esku hartzeko.

Prozesu honen emaitzak txosten batean jasoko dira; hura udal webgunearen bidez eskuratu ahal da eta inguruko etxeetara bidaliko da.

Gainera, bilera ireki bat egingo da esku hartzeko zonaldeetik gertu dagoen ekipamendu batean, garaiz jakinaraziko den tokian eta egunean.

Argibide gehiago eskuratzeko:

<http://txukun.getxo.net>

Hiri Mugikortasun Iraunkorrekako Plana  
Plan de Movilidad Urbana Sostenible

Hiri Mugikortasun Iraunkorrekako 2017-2030eko Plana (HMIP) prestatzen ari da Udala. Getxoko hiri mugikortasuneko politiken ikuspegi integratua eskainiko duen tresna izango da, udalerrian mugikortasunari eragiten dioten arlo guztietarako helburu eta jarduketak neurri zehatzak proposatuta. Epe luzeko testuinguru batean, mugarria 2030. urtean duena.

**Aurrez aurreko Topaketa, hiritar guztientzat irekia, maiatzaren 25ean, osteguna, Getxo Elkartegian (Ogoño kalea, 1, Areetan), 18:00etan. Gaia: gure udalerriko mugikortasun iraunkorren egoerari buruzko gizarte-diagnostikoa.**

Ez da alde aurretik izena eman behar (sarrera doan, aretoko lekuak bete arte).

Udalerrira osasungarri, eraginkor eta iraunkorrago baten alde

**Lagundu Getxo hobetzen!**



## MAIATZAK 18 OSTEGUNA

**Ipuinaren ordua.** Villamonteko haur liburuetan, 18:00etan, "Los bolsillos del Bel de Bil", Anabel Murorokin. Gaztelaniaz. 5-9 urte. Sarrera dohainik.

**Literatura solasaldia.** Algortako Kasinoan, 19:45ean, Kultur Etxearen Sortze-idazketa tailerraren eskutik, "Aquello estaba deseando ocurrir" liburuar buruzko solasaldia. Egile: Leonardo Padura.

**Getxon Zuzenean.** Silver's Tavern puben (Kirol Portua), 20:00etan, Pedro Makay (world music). Sarrera dohainik.

**Gizatiar.** Romo-Areetako giza- eta kultura-elkartea. Hitzaldia: "Cáncer de piel: causas, prevención y tratamiento". Hizlari: Arantza González Arratibel (AECCko prebentzio saila). 18:15ean, Romoko San Jose elizako egoitzan. Sarrera dohainik.

## MAIATZAK 19 OSTIRALA

**Cinema Paradiso.** 2016/17 denboraldiaren amaiera. Andrés Isasi Musika Eskolan (Areetan), 21:00etan, "La muerte de Luis XIV". Zuzendari: Albert Serra. Hiz.: frantsesa. 7 urte-rik gorakoentzat. Sarrera: 2,90€.

## MAIATZAK 20 LARUNBATA

**Umore ikuskizuna.** Andrés Isasi Musika Eskolan (Areetan), 20:00etan, "Una noche con Enrique San Francisco y Raúl Fervé". Sarrera: 15€.

**Birziklatzearen Munduko Eguna.** Kale ekintzak, Udalak sustatuta: "Tribiantzara erraldoia" eta birziklatze tailerrak, 14 urtez azpikoentzat. Malakate parkean, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

**XX. Botanika Jardunaldiak.** Txangoa landareak biltzeko Getxotik eta inguruetatik. 9:00etatik 13:00etara. Antolatzaile: Basozaleak Mikologia eta Botanika Elkarteak.

**Kontzertua bi organorekin.** 20:00etan Areetako Ama Mese-deetako elizan. Organo-jotzaileak: Daniela Mokosch eta Pedro Guallar. Antolatzaileak: Getxoko Udala eta Las Mercedes Kultura Elkarteak.

## MAIATZAK 21 IGANDEA

**Haurrentzako zinea.** 2016/17 denboraldiaren amaiera. Andrés Isasi Musika Eskolan (Areetan), 17:00etan, "Vaiana". Gaztelaniaz. Adin guzti-entzat. Sarrera: 2,10€.

**XX. Botanika Jardunaldiak.** Erakusketa, botanikari buruzkoa. Tellagorri plazan, 11:00etatik 14:00etara.

**Iparlako mendigunea.** Iparla (1.044m.). Antolatzaile: Etorkizuna Mendi Taldea.

## MAIATZAK 22 ASTELEHENA

**Erakusketa.** Algortako Kultur Etxean, Arteskolako ikasleak

(2016-17 ikasturtea). Hilaren 31ra arte.

**XX. Botanika Jardunaldiak.** Hitzaldia: "Getxo: bere faunaren bilakaera XXI. mendean". Hizlaria: Xabier Buenetxea, faunaren kudeaketan teknikari espezialista. 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean.

**Mugabarik.** Norbanakoen trebatze eta garapenerako Elkartea. Hitzaldia: "Música, salud y emociones". Hizlaria: Olga Sánchez Iniesta (Musikoterapeuta). 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean.

## MAIATZAK 23 ASTEARTEA

**Mugabarik.** Norbanakoen trebatze eta garapenerako Elkartea. Tailerra: "Educar sin castigar". 12 urteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta. 19:00etan, Algortako Tourseko San Martin elizan. Leku mugatuak. Tel. 686 878 539.

## MAIATZAK 24 ASTEAZKENA

**XX. Botanika Jardunaldiak.** Hitzaldia: "Lurzoru mota desberdinetako landare eta perretxiko bioadierazgarriak". Hizlaria: Alfred Llorente, biologo eta Basozaleakeko kidea. 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean.

**Punta Begoña. Mahai-ingurua:** "La recuperación de una joya arquitectónica: las Galerías Punta Begoña", UPV/EHUk antolatuta. 19:00etan., Bilboko Azkuna Zentroko Auditoriumean. Sarrera dohainik (Azkuna Zentroko informazio-gunean hartu behar da).

## MAIATZAK 25 OSTEGUNA

**Odol-ateratzea.** Areetako Geltokia plazan, goizean eta 16:30etik 21:00etara.

**Getxon Zuzenean.** 2016/17 denboraldiaren amaiera. Areetako Aitite puben, 20:00etan, Daniel Merino (popa). Sarrera dohainik.

**Gizatiar.** Romo-Areetako giza- eta kultura-elkartea. Hitzaldia: "Elikadurari eta elikagaien industriari buruzko kontuak eta zalantzak". Hizlaria: Marcos Ferrer (Nutrizionista). 18:15ean, Romoko San Jose elizako egoitzan. Sarrera dohainik.

## MAIATZAK 26 OSTIRALA

**Zine Kluba.** 2016/17 denboraldiaren amaiera. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Einstein en Guanajuato" filmaren proiektzio eta foruma. Zuzendari: Peter Greenaway. 16 urte-rik gorakoentzat. Sarrera: 2,90€.

## MAIATZAK 27 LARUNBATA

**Birziklatzearen Munduko Eguna.** Kale ekintzak, Udalak sustatuta: "Tribiantzara erraldoia" eta birziklatze tailerrak, 14 urtez azpikoentzat. Algortako Geltokia plazan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

## MAIATZAK 28 IGANDEA

**XXXV. Eskola Antzerki Jardunaldiak.** Andrés Isasi Musika Eskolan, 11:30-14:00 eta 17:00-20:30, GUABE elkarteak ikasturtean zehar ikastetxetan antzerki tailerretan egindako lana erakutsiko da.

- **Mutil arduratsua** eta pertsona nagusiak edo nekazaritzan eskarmentuarekin lan bila dabil. Tel.: 685 47 81 58
- **Neska arduratsua** lan bila dabil, pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 632 07 78 96.
- **Andrazkoak** bere burua eskaintzen du arropa litzateko eta adinekoak edo umeak zaintzeko. Esperientziaduna eta txostenekin. Tel.: 635 80 66 19.



- **Soria.** Errentan ematen dut etxea herri batean, belardiarekin. La-saitasuna. Cañón Río Lobos eremuan. Tel.: 94 480 25 13.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien erantzule izango.

**Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111**

**Getxoberri** Getxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-ri lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikaziozko zinegotzia: **Amaia Agirre**. Zuzendaria: **Javier García**. Erredaktoreburua: **Itziar Aguayo**. Erredakzioa: **Nekane Ardanza**, **Monika Rodrigo, Iñigo Olondo**. Urgull kalea z.g., 4. Tel.: 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: **getxoberri@getxo.eus** Arte arduradunak: **Flash Composition SL** Inprimaketa: **Editorial Iparraguirre S.A.** Banaketa: **Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua** Gordailu legala: **BI-388-87**



Kanpainako ekintza bat Bilboko Gran Vian

# Foru Aldundiaren kanpaina helduko da Benetan ez zaizula sartzan sehaska bat etxean?

*Benetan ez zaizula sartzan sehaska bat etxean?* da Foru Aldundiak adingabeentzat harrera-familiak bilatzeko abian jarri duen kanpainaren leloa eta ostegunean, maiatzak 25, Getxora helduko da. Ekimen horren bidez gizarteari dei egiten dio Aldundiak, 10 pertsona edo familia behar baitira 3 urtetik beherako haurrak premiaz hartzeko eta beste 25 familia gehiago, 3 eta 13 urte bitarteko adingabeak hartzeko.

Foru Aldundiak sehaska bat jarriko du Algortako Geltokia plazan, eta beste bat Areetakoan, 10:30etik 18:00etara, herritarren arreta erakartzeko. Aldi berean, harrera programako bi teknikaririk horri buruzko xehetasunak azalduko dituzte. Duela aste batzuk kanpainaren aurkezpenak informazio eskartzeko dei ugari eragin zuen arren, diputazioak deia egiten segitzen du, eskaerak gutxiago

izaten direlako, familien beharra etengabea delako, eta ondorioz, kanpaina ez delako inoiz amaitzen. Gaur egun Bizkaian 314 adingabe bizi dira abegi-familia batekin. Harrera-familien sarean parte hartu nahi duten pertsonak balorazio prozesu bat gauzatu behar dute. Informazioa eskatzeko: 944470737/ [acogimientofamiliar@bizkaia.eus](mailto:acogimientofamiliar@bizkaia.eus)

## Arrasateko Unibertsitateko ikasle batzuek sustatuta

# Pertsona nagusien etxeak hobetzeko proiektu ekintzailea

Arrasateko Unibertsitateko Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan graduaren bigarren mailako hiru ikasle proiektu bat abiaraziko dute datozen asteotan Getxon. 20 eta 24 urte bitarteko gazte ekintzaile horiek Eduardo Fierro, Haize Trueba eta Gastón Zabala dira, eta behar bezala identifikatuta, hainbat pertsona nagusien etxeak bisitatuko dituzte, beraien egoera eta etxean dituzten zailtasun eta eragozpen nagusiak ezagutzeko. Informazio horrekin, helburua da doako ikerketa lagunkoia egitea, beraien autonomia hobetzeko etxebizitzetan. Proiektuak, besteak bes-

te, Deustuko Unibertsitatearen eta Donostiako udalaren babesa du, eta 20-75 izeneko tokiko ekimenaren barruan kokatzen da. Horren misioa da pertsonen nagusien bizitza-kalitatea hobetzea eta jabekuntzaz hornitzea. Aldi berean, gazteek pertsona nagusiei beste aukera batzuk ere aditzera emango dizkiete, horien artean, *Adoptatu ikasle bat*, pertsona nagusi eta gazteen arteko harremanak, bultzatzen dituen bizikidetzak (elkarrekin egoten) programa. Horretarako, pertsona nagusiak ostia eskaintzen du, eta gazteak alokairu merke baten truke, etxeko gauzetan laguntzen du.



## III. Book Trailer sari banaketa

Lehiaketa honetako irabazleak izan dira: A kategorian (12-15 urte), Alicia Yañez *Urtebete itsasargian* liburuar buruzko bideoagatik; eta B kategorian (16-18 urte), Jon Rodríguez Simon de Beauvoir liburuaz egindako lanarengatik. Publikoaren saria Maite Lasuen eta Naia Jaiok irabazi dute *Ipuin batean bezala*-gatik. Algortako Gauegun gaztelekuan egin zen sari banaketa, iragan larunbatean, hilak 13.

# LABURRAK

## Kultura aniztasunaren mundu Eguna.

*Bizilagunak, elkartzeko bideak* izeneko ekimenak, igandean, maiatzaren 21ean Kultura Aniztasunaren mundu Eguna ospatuko du, hainbat jarduerarekin, Fadurako aintzinako garagardotegian. Hori kultur artekotasanaren, aniztasunaren eta udalerrian elkartzeko guneak sortzearen aldeko pertsonentzako topagunea izango da. Getxoko Etorikinen Plataforma Federazioak, Ibilki elkarteak, Egizu elkarteak eta Udalak sustatutako Zurrumurrurik ez Estrategiak antolatutako jardunaldia 10:45ean hasiko da Geroa irudikatzen tailerrarekin. Ondoren tailer gehiago eta jardura ludikoak izango dira ume eta helduentzat, eta 14:30ean, herri-bazkaria. Informazioa eta izen-ematea: 644 595 191/ [getxobizilagunak@gmail.com](mailto:getxobizilagunak@gmail.com)

## Zurrumurruren kontrako 30 agente berri.

Aurten 30 bat pertsonak parte hartu dute Zurrumurrurik Ez Agenteen heziketan, kultura-artekotasunari buruzko heziketa hartzeko eta baita zurrumurruei aurre egiten ikasteko ere. Orain arte, bost urtetan, 150 pertsona baino gehiagok jaso dute aipatutako heziketa udalaren Zurrumurruren kontrako Estrategiaren eskutik. Gai zehatzari buruzko mintegiak, bestalde, aurtengo azken hiruhilekoan antolatuko dira.



## Gau bat Enrique San Francisco eta Raúl Fervéekin

Enrique San Francisco aktore eta bakarrizketalari ospetsua, Raúl Fervé komikoarekin batera, *Una noche con Enrique San Francisco* ikuskizunaren protagonista izango da. Horretan, bere bakarrizketa onenen eta famatuena ekarriko dizkigu, *El club de la comedia*, *El hormiguero* eta beste saio eta oholtza ezagun batzuetan antzeztu dituenak. Emanaldia datorren ostiralean, hilak 19, izango da, 20:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan eta sarreraren prezioa 15€koa izango da. Antzerki-jardueran arrakasta handiak izan ditu Enrique San Franciscok, esaterako *Frankie y la boda*, *Decíamos ayer*, *Misterioso asesinato en Manhattan*, *El enfermo imaginario* eta aktorea bera protagonista zuten zenbait ikuskizun.

## Parkean euskaraz olgetan

Egizu elkarteak maiatzeko ostiraletan hainbat jolas antolatu ditu udalerriko parketan, gurasoen eta 3 urtetik gorako seme-alaben gozamenerako. Hurrengo hitzorduak maiatzaren 19an Areetako Geltokia Plazan eta hilaren 26an Algortako San Nikolas plazan izango dira, 17:30etik 19:30era.

Bestalde, larunbatean, maiatzaren 20ean, Mehatzaldarako irteera izango da, bere historia eta istorioak Alberto Vargas idazle eta kontalariaren eskutik ezagutzeko. Parte-hartzaileek Gallarta, Peñas Negras, Sauko eta Zugaztieta bisitatuko dituzte. Irteera 09:00etan izango da Faduratik. Izen-ematea: 644 277 155/ [sendi@egizu.eus](mailto:sendi@egizu.eus)

Una noche con...  
**ENRIQUE  
SAN  
FRANCISCO**




Halaber, hainbat filmetan parte hartu du. Horien artean *Amanece que no es poco*, *Paris Tombuctú*, *Acción mutante*, *La dama boba* edo *El chocolate del loro* aipatu behar dira.

### Getxora "Una noche con Enrique San Francisco"-rekin dator

Beti kutsu ironiko eta bihurri batekin, inor epel uzten ez duen nortasun intentsuarekin, eguneroko egoeretara hurbilduko da umore zorrotz eta bizkorrekin, dibertsio oiesa bermatuz. Oraingoan Raúl Fervé komikoarekin etorriko zaigu.

## Chris Claremont, Getxoko Komiki Azokako gonbidatu nagusia

Getxoko 16. Komiki Azokak Chris Claremont gidolari famatua izango du gonbidatu nagusia, X-Men modernoaren sortzailea izan delako eza-guna dena. Berarekin batera beste artista batzuk ere egongo dira azokan, besteak beste, komikiaren munduko pertsonaia ospetsuei egiten dien omenaldien protagonistak. Aurten saria jasoko dute Josep Maria Beà egile bartzelonarrak (estatuan helduentzako komikien boomaren ordezkari nagusienetariko bat eta baita Estatu Batuetan bere komikiak garatzen eta gidoiak egiten aitzindaria) eta Harriet sortzaile gipuzkoarrak (Harriet Ediciones argitaletxearen sortzailea, gaztelaniaz zein euskarazko komiki eta eleberri grafikoak kaleratzen dituena). Azokan, azaroaren 3tik 5era bitartean,



bi artista horien lan esanguratsuenak biltzen dituzten bi erakusketaren protagonistak izango dira.

## Aurtengo edizioak hizpide izango du: "Getxoko fauna eta lurzoruen eragina landare eta perretxikoetan" Jardunaldi Botanikoek XX. urteurrena beteko dute

Getxoko XX. Jardunaldi Botanikoak maiatzaren 20tik 31ra bitartean egingo dira eta *Getxoko fauna eta lurzoruen eragina landare eta perretxikoetan* gaia izango dute hizpide. Egitaraua, Basozaleak antolatua, maiatzaren 20an hasiko da, larunbatean, udalerrian zehar 09:00etatik 13:00etara egingo den ohiko landare-bilketa txangoarekin. Landare horiek arratsaldean sailkatuko dituzte eta igandean, 11:00etatik 14:00ak arte erakusketa egingo dute Algortako Tellagorri plazan.

### Hitzaldiak

Ohiko hitzaldiak ere izango ditugu jardunaldi hauetan. Lehenengo hitzaldia izango da *Getxo: bere faunaren bilakaera XXI. mendean*, astelehenean, hilak 22, Xabier Buenetxea faunaren kudeake-

tan teknikari espezializatuaren eskutik. Bigarrenean, asteazkenean, hilak 24, Alfred Llorente biologo eta Basozaleak elkarte mikologiko botanikoaren kideak hitz egingo du *eta Lurzoru mota desberdinetako landare eta perretxiko bioadierazgarriak* izango du mintzagai. Hirugarren hitzaldian, azkenengoan, *Gure ingurune gatz-lurzoru* landareak gaiaz arituko da Enrique Elexpuru biologoa, bera ere Basozaleak elkarte-kidea.

Hitzaldi guztiak 19:30ean izango dira Algortako Kultur Etxean, Villamonten. Informazio gehiago elkartearen egoitzan (Karitate kalea 1, Algorta) astelehenean eta ostegunetan 19:00etatik 21:00ak arte, [web@basozaleak.com](mailto:web@basozaleak.com) helbide elektronikoan eta [www.basozaleak.com](http://www.basozaleak.com) webgunean.

## Christian Scottek ordezkatu du Pharoah Sanders Getxoko Jazzaldian

Christian Scott tronpeta-jotzaile gaztea ariko da Getxoko Jazzaldian ekainaren 29an. Scott Pharoah Sandersen orde-

zari ariko da, horrek bertan behera utzi baitu Getxon egun horretan eskaini behar zuten saioa, antolatzaileenak ez diren arazoak direla eta.

Christian Scott Estatu Batuetako jazz musikariaren belaunaldi berriko tronpeta-jotzaile onenatariko bat da. Kritikoaren ustez, jazz berriaren erregea da, jazz hip hop eta rock erritmoak era bikainean uztartzea lortu baitu. Pharoah Sandersen kontzerturako sarrerak erosi dituzten lagunei dirua itzuli egingo zaie Algortako Kultur Etxean, Villamonten.

## Kantu-jira Algortan, Azebarrarekin

Azebarri Kultur Elkarteak kantu-jira antolatu du Algortako kaleetatik, ostiralean, hilak 19, 20:00etatik aurrera, elkarteak Euskal Herria kaleko 14an duen egoitzatik aterata. Ondoren, 22:00etan Xabier Leteri buruzko afari tematikoa izango da produktu ekologikoekin, 18€tan. Informazioa: [azebarri@gmail.com](mailto:azebarri@gmail.com)/688 65 29 17.



### Zirko tailerra

Datorren larunbatean, ekainak 3, 12:00etan, 7 eta 11 urte bitarteko umeentzat Zirko tailerra egingo dute Areetako Eskoletako plazan. Izena Romoko Kultur Etxean eman daiteke edo 94 464 91 33 telefono zenbakiam, 09:00etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 18:00ak arte (asteleheneetik ostiralera) eta 25 leku daude.

Tailerrean partehartzaileek akrobaziak nola egiten diren ikasiko dute, hala nola, zirkoaren teknika desberdinak, hainbat objektu eta erremintak ekilibrioa egiteko, kableak eta pilotak besteak beste, trapezioa, koltxonetak eta ekilibrio eta flexibilitatea lantzeko beste zirko-jolasak.



**Pedro Barros etorriko da txapelketara, munduko skater onena, ekainaren 23tik 25era**

## Emakumezkoen goi mailako skatea eta kontzertuak, La Kantera Pro Nazioarteko Skate Txapelketan

Zenbait berrikuntza dakartza Euskaltel La Kantera Pro nazioarteko skate txapelketak aurten. Ekainaren 23tik 25era jokatu da Arrigunagan. Hain zuzen ere, Volcom eta Euskaltelek babestuta eta Getxo Kirolak lankidetzarekin antolatuta dagoen ekitaldi honetan, emakumezkoen goi mailako txapelketa jokatu da lehenengo aldiz, master kategoriako mitoen ohiko norgehiagokaz gainera.

Bien bitartean, Pedro Barros, munduko bowl rankingeko lehen tokian dagoena, Grant Taylor, CJ Collins, Iván Federico eta Danny León skaterrek baieztatu dute dagoeneko Getxon izango direla txapelketan parte hartzeko. Guztira, 50.000€ banatuko dira saritan.

Txapelketan bestalde, eta hau ere aurtengo nobedade gisa, zuzeneko musika emanaldiak ere protagonista izango dira jardunaldi bakoitza amaitu

tutakoan: ekainaren 23an, ostirala, Smile eta DJ We Are Standard arituko dira; eta 24an, larunbata, Berta Bittersweet eta DJ Colectivo.

La Kantera Pro txapelketa hasi baino egun batzuk lehenago, berriz, patinaren kulturarekin lotutako jarduerak egingo dira udalerriko hainbat lekutan. Horrela, ekainaren 17an, larunbata, Skatearen Astea hasiko da, Arrigunagan bertan; eta Basque Pool zirkuituko proba bat ere jokatu da egun horretan, La Kantera Skate Eskolak antolatuta. Ekainaren 21ean, asteazkena, The Tournament txapelketa jokatu da Areetako skate parkean, eta irabazleak tokia izango du nazioarteko txapelketan parte hartzeko. Aurreko urteetan bezala, skate ikasteko saioak ere jasotzen ditu aurtengo egitarauak, jende guztiarentzako saioak.

Argibide gehiago [www.lakanterapro.com](http://www.lakanterapro.com) webgunean.

## Ibon Larrinaga, superoilarreko txapelduna

Romoko boxealaria WBC Mediterraneo kontseiluko txapelduna da Superoilar-pisuan, iragan ostiralean, hilak 12, La Rochelleko saioan Georges Leroy frantsesari irabazi eta gero. Borrokaldia 10 round-era jokatu zen eta hiru epaileren erabakia ahobatezkoa izan zen: getxotarra garaile. Bi boxeolariak borrokarik galdu gabe iritsi ziren azken borrokaldi horretara, baina Romokoa erraz nagusitu zen.

Profesionaletan urtebete eskas egin badu ere, Ibon Larrinagak orain arte jokatu dituen zortzi borrokaldiak irabazi ditu, azkena europar mailakoa gainera.

## Naomi Matthews munduko txapelketara

Naomi Matthews borrokalari getxotarrak, Mundoko klubeko kidea, Munduko Grappling eta Grappling Gi Txapelketan parte hartuko du, urrian Azerbaijanen. Borroka-kirola da, hain zuzen, non arerioa bota behar den eraitsi eta heltzeko teknikak erabiliz, inolako kolperik gabe. Naomik sailkatzea lortu du Europako Grappling Gi Txapelketa irabazi ondoren, selekzio espainiarrarekin, 53 kiloko kategorian.

IV. Ibai Azkue Memorialak 36 futbol talde, kimu eta benjamin mailakoak, elkartuko ditu guztira Bolueko zelaietan; Logroño, Castro, Burgos, Vitoria-Gasteiz eta Bizkaiko hainbat tokitakoak, azken horien artean etxeoak



### Igeriketa zeharkaldia.

Datorren ekainaren 4an, igandea, Kirol Portuan Puerto Deportivo-El Abra Getxo Igeriketa Zeharkaldi solidarioaren hirugarren aldia egingo da, The Swimet, Nergroup eta Getxo Kirolak antolatuta. Proba 12:00etan hasiko da promesa kategoriakoentzat (14 urtez azpikoak), 350 metroko distantzia betetzeko; eta 12:20an irtengo dira nagusiak, km 1eko distantzia betetzeko. Dohaina 15€ da eta bildutako dirua bertoko Sortarazi elkarteari emango zaio, baztertuta eta baztertuta geratzeko arriskuan daudenen aldeko elkarteari. Argibideak jaso eta inskripzioak egiteko: [www.theswimet.com](http://www.theswimet.com).

## Bi irristalari getxotar izango dira Espainiako Solo Dance Txapelketan

Bi neska getxotarrak hartuko dute parte Espainiako Solo Dance Txapelketan, ekainaren 2 eta 3an Fuengirolan (Málaga): Naroa Etxebarria Abrisketak, Show Getxo elkarte irristalaria, eta Naroa Ruiz Mongek, Portugaleteko Kiribil Taldeko kidea.

Gurpildun Patinaje Artistikoko Euskadiko Txapelketan, Etxebarria, 13 urtekoa, txapelduna izan zen Solo Dance modalitatean, kadete kategorian; eta Ruiz, 12 urtekoa, txapeldun ere libre eta solo dance modalitateetan, haurren mailan. Txapelketa iragan maiatzaren 6an egin zen Barakaldoko Lasasarre Kiroldegian. Torneoan, hogeita hamar

bat patinatzailek parte hartu zuten, haur, kadete, junior eta senior kategorietan, eta horien artean izan ziren Anne Larrieta (hirugarren sailkatua solo dance eta librean) eta Lucía Fernández (bigarrena solo dancean) eta Carmen Sansebastián kadetea (bigarren solo dance modalitatean).

Bestalde, beste bi patinatzailek, Getxon bizi ez baina GiraGetxo patinaje Klub berriko kide dira, urrezko domina bana lortu zuten, modalitate librean, Euskadiko Txapelketa horretan: Aiesa González Hernández (gaztea) eta Marina Ruiz Diez (juniorra). Horiek ere Espainiako Txapelketan izango dira.



Eunate, bigarrena ezkerretik

## Eunate Etxebarria Espainiako txapelduna, haurren judoan

Eunate Etxebarria judoka getxotarra da, Getxo Judo Klubeko kidea, Espainiako txapelduna, haur mailako 63 kiloz azpiko kategorian. Maiatzeko hasieran jokatu zen lehiaketa, Valentzian. Bizkaiko eta Euskadiko txapelduna izan da aurten 13 urteko judoka, eta horrela lortu zuen Espai-

niako Txapelketarako txartela. Eunate Etxebarriak, Agustín López de Letona entrenatzailearen ikasleak, argi eta garbi irabazi zien bere aurkariei jokatu behar izan zituen lau borroketan, eta urrezko domina irabazleak lau borroketako batean ere ez zuen arauzko denbora agortu beharrik izan.

20an, Boluen

## 36 talde izango dira futboleko kimu eta benjamin IV. Ibai Azkue Memorialean

direla. Club Deportivo Getxo taldeak antolatuta, bere menpe dagoen Getxo Futbola Eskolaren bitartez, eta Getxo Kirolak laguntzarekin, aurten beritasun bezala, Memorialak bi txapelketa izango ditu, bata 2006an jaiotakoentzat


eta bestea 2007an jaiotakoentzat. Jardunaldia 09:00etan hasiko da, kanporaketekin, eta finalak 19:30ean jokatu dira. Ordu erdi bat beranduago, sari banaketa ekitaldia egingo dute, amaitzeko.



### I. Astobiza Kopa.

Abrak hartuko du asteburu honetan, hilaren 20 eta 21ean, I. Astobiza Koparen hirugarren eta azken jardunaldia, Estropada, Kurtzero eta J 80 belaontzientzat, R.C.M.-R.S.C. del Abra elkarteak antolatuta.

Bigarren jardunaldian, *Symphony*, *Kantarepe*, *Artako* eta *Biobizz* ontziak gailendu ziren norbere klasean. Ontzi horiek dira faborito nagusiak, baiokitza bere kategorian, I. Astobiza Kopa hau irabazteko, punta-puntako beste ontziekin batera, esate batera, Javier Onaindiaren *Emaldi*, Abrako uretan urtean egiten diren probetako kiniela guztietan ohikoa dena.



### Virginia Díaz.

Raspas Arrauneko Munduko Kopako Top-10ean sartu da, bederatzigarren tokian sailkatu baitzen Belgradon (Serbia) duela gutxi jokatu txapelketan. Orain, Virginiak hurrengo helburua finkatuta du dagoeneko: Europako Txapelketa, maiatzaren 26tik 28ra Txekiar Errepublikan jokatu dena. Bere asmoa lehiaketa horretako finalerako txartela lortzea eta lehen hamarren artean sailkatzea.

Bestalde, Raspasen gizonezkoen 8+ ontziak -bi senior eta sei gaztez osatua- brontzezko domina irabazi zuen Euskadiko Txapelketa Absolutuan. Urrea eta zilarra Hondarribi eta Orirentzat izan ziren, hurrenez hurren.